



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN 31. ASTEA URRIAREN 30ETIK AZAROAREN 6RA BITARTE EGINGO DA

*Asteari **Peninsula** filmak emango dio hasiera,
eta **Mandibules** filmak emango dio amaiera Victoria Eugenia Antzokian*

Datorren urriaren 30ean, ostirala, Koreako **Peninsula** filmak (Yeon Sang-ho, 2020) hasiera emango dio Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Asteari, Victoria Eugenia Antzokian. Amaiera, berriz, Frantziako **Mandibules** filmak (Quentin Dupieux, 2020) emango dio azaroaren 6an, leku berean.

Bi data horien artean, fantasiako zinemako urteko film luze eta film laburrik onenetako batzuk eta generoko hainbat obra klasiko ikusi ahal izango dira, eta hainbat jarduera egingo dira Asteko programazioa osatzeko.

Aurten, lehiaketaren egoitza nagusiak Principal eta Victoria Eugenia antzokiak izango dira. Bertan, Asteko sail ofizialeko filmak emango dira: **18 film luze** eta **33 film labur** (13 film laburren nazioarteko sailean, 7 animazio-film laburren sailean, eta 13 Espainiako film laburren sailean).

Generoko zinemaren historian izan diren panpinak ekartzen dituen eta aurten **6 filmez** osatuta dagoen **Panpin madarikatuak** zikloa bi antzokietan, Tabakaleran eta Okendo Kultur Etxean ikusi ahal izango da. Azken horretan, dagoeneko bi film eman dituzte.

Euskadiko Filmategiarekin lankidetzan, omenaldia egingo zaio duela hilabete batzuk zendu zen **Javier Aguirre** zinemagile donostiarrari, eta haren filmik garrantzitsuenetako bat emango da: **El gran amor del conde Drácula** (1972).

Asteko programazio zinematografikoa osatzeko, haur-zinemako film bat izango dugu beti bezala (**Turuleka oiloa**), baita Kresala zineklubaren ohiko ekarpena ere (**Little Joe**).

Beti bezala, beste jarduera batzuk ere txertatu dira Asteko programan, eta, aurtengo edizioan, honako hauek azpimarra daitezke: **Azaro mamua** izeneko hedapen partekatuko kanal berria, Fancine (Malagako Fantasiako Zinemaldia) eta Terrormolins (Molins de Reiko Beldurrezko Zinemaldia) zinemaldiak lankidetzan sortua; Mikel Pagadik beldurrezko zinemari buruz egingo duen bakarrizketa (**Beldurted**); eta **Fanzineen gerra** klasikoaren 5. edizioa.

Horrez gain, 4 erakusketa egongo dira 31. Asteko programaren barruan (**Topic Museoa: Alegiazko izakiak**; **Sarima: Mundu magiko bat**, **Fernando Mircala: Etorkizun dotorea** eta **Betiereko Juan Giménez**).

Sarrera salmenta **ONLINE** egingo da. Webgunean (www.donostiakultura.eus/entradas) asteartean, urriaren 27an, 11:30etik aurrera jarriko dira salgai. Urriaren 27, 28 eta 29an online bakarrik erosi ahal izango dira. Ostiraletik, urriaren 30etik aurrera, berriz, bi antzokietako leihatiletan ere jarriko dira salgai.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

FILM LUZEEN SAIL OFIZIALA

INAUGURAZIOA

- **Peninsula** (2020). Yeon Sang-ho. Hego Korea

BUKAERA

- **Mandibules** (2020). Quentin Dupieux. Frantzia **(LK)**
- **Benny Loves You** (2019). Karl Holt. Erresuma Batua
- **Come True** (2020). Anthony Scott Burns. Kanada
- **Caminantes** (2020). Koldo Serra. Espainia **(LK)**
- **Le Dernier voyage de Paul W. R.** (2020). Romain Quirot. Frantzia
- **Host** (2020). Rob Savage. Erresuma Batua
- **Los que vuelven** (2019). Laura Casabé. Argentina
- **Lupin III: The First** (2019). Takashi Yamazaki. Japonia
- **Méandre** (2020). Mathieu Turi. Frantzia
- **La Nuée** (2019). Just Philippot. Frantzia
- **Post Mortem** (2020). Péter Bergendy. Hungaria
- **Psycho Goreman** (2020). Steven Kostanski. Kanada
- **The Queen of Black Magic** (2020). Kimo Stamboel. Indonesia
- **Sea Fever** (2019). Neasa Hardiman. Irlanda-AEB-Erresuma Batua-Suedia-Belgika
- **Sky Sharks** (2020). Marc Fehse. Alemania
- **Stigmatized Properties** (2020). Hideo Nakata. Japonia
- **Tailgate** (2019). Lodewijk Crijns. Herbehereak

(LK) lehiaketatik kanpo

BESTE PROIEKZIOAK

JAVIER AGUIRRE: OMENALDIA

El gran amor del conde Drácula (1972). Javier Aguirre. Espainia

KRESALA ZINEKLUBA

Little Joe (2019). Jessica Hausner. Austria-Erresuma Batua-Alemania

HAURRENTZAKO ZINEMA

Turuleka oiloa (2019). Víctor Monigote, Eduardo Gondell. Argentina-Espainia



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

FILM LABURREN NAZIOARTEKO SAILA

- **4x6** (2020). Jamie Gyngell. Erresuma Batua
- **Downward Facing Dogs** (2019). Karsten de Vreugd. Herbehereak
- **The Fall** (2019). Jonathan Glazer. Erresuma Batua **(LK)**
- **The Familiars** (2020). Millicent Malcolm. Australia
- **Howl from Beyond the Fog** (2020). Daisuke Sato. Japonia **(LK)**
- **In the Mirrors** (2020). Merlin Camozzi. AEB
- **Live Forever** (2019). Gustav Egerstedt. Suedia
- **Migrations** (2020). Jerome Peters. Belgika
- **Nightingale** (2020). Jasper de Bruin. Herbehereak
- **Rebooted** (2019). Michael Shanks. Australia
- **Separation** (2019). Rebekah McKendry. AEB
- **A Stranger from the Past** (2020). Jan Verdijk. Herbehereak
- **Le Tueur du lac maudit** (2020). Laurent Ardoit, Stéphane Duprat. Frantzia

(LK) lehiaketatik kanpo

Epaimahaia Ofiziala

Caye Casas (zuzendaria)

Desirée de Fez (kazetaria)

Valeria Vegas (idazlea)

ANIMAZIO FILM LABURREN SAILA

- **Candela** (2020). Marc Riba, Anna Solanas. Espainia
- **Farce** (2019). Robin Jensen. Norvegia
- **Mad in Xpain** (2020). Coke Riobóo. Espainia
- **Mermaid in a Jar / Merenneito purnukassa** (2020). Malakias. Finlandia
- **Las niñas terribles** (2020). David Orellana. Espainia
- **One Left** (2020). Sebastian Doring. Austria
- **The Zillas Have a Picnic** (2019). Christian Franz Schmidt. Alemania

ESPAINIAKO FILM LABURREN SAILA

- **Abracitos** (2020). Tony Morales
- **Conversaciones con un mono** (2020). Grojo
- **La dama del fantaterror** (2020). Diego López **(LK)**
- **Dar-dar** (2020). Paul Urkijo Alijo
- **Nom** (2019). Ángel Hernández
- **Ospel** (2020). Xanti Rodríguez **(LK)**
- **Rutina: La prohibición** (2020). Sam
- **Sonrisas** (2019). Javier Chavanel
- **There Will Be Monsters** (2020). Carlota Pereda
- **Zerua hautsi zen gaua** (2020). María Fontán **(LK)**

(LK) lehiaketatik kanpo



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

zikloa
PANPIN MADARIKATUAK

2020ko Asteko kartelaren protagonistetako bat Nino panpina da. Aukera baliatuta, panpinak protagonista dituzten fantasiako zinemako sei film klasiko emango dira ziklo horretan.

- **Attack of the Puppet People** (1958). Bert I. Gordon. AEB
- **Magic** (1978). Richard Attenborough. AEB
- **Freddy (Historias para no dormir)** (1982). Narciso Ibáñez Serrador. Espainia
- **Child's Play** (1988). Tom Holland. AEB
- **Puppet Master** (1989). David Schmoeller. AEB
- **Dead Silence** (2007). James Wan. AEB



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

ERAKUSKETAK

Topic Museoa: Alegiazko izakiak

Okendo K. E.
iraila 25 – azaroa 9

Asterako *ad hoc* diseinatu du **Tolosako Topic Museoak** erakusketa bat: **Alegiazko izakiak**. Bertan 80 txotxongilo ikusi ahal izango dira, eta horietatik erdia ez dira inoiz ikusgai jarri. Hala, lehen aldiz irtengo dira Topiceko biltegietatik, museoko pieza gisa beren burua “gizartean aurkezteko” gogoarekin.

Euskadi Fantastikoa XVI

Sarima: Mundu magiko bat

- **Donostia**
Udal Liburutegi Nagusia
urria 24 – azaroa 14
- **Irun**
CBA – Carlos Blanco Aguinaga Kultur Gunea
azaroa 23 – abendua 9

Marisa López ilustratzailearen goitizena da **Sarima**, bere izenaren silaben ordena alderantzikatzearen emaitza. Bilbokoa da eta bertan bizi da, eta ilustratzaile digitala, diseinatzaile grafikoa eta irakaslea da. Bere eskutik izaki eta mundu fantastiko ugari sortu dira: elfoak, sorginak, euskal mitologiako izakiak, maitagarriak, faunoak, aztiak, emakume gerlariak... era guztietako izaki magikoak, haren irudimenetik sortuak, gure ametsak are joriagoak izan daitezten.

Fernando Mircala: Etorkizun dotorea

Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera – 4. solairua)
urria 14 – abendua 13

Etorkizun dotorea mundu baten proposamen grafiko estetiko-metafisiko bat da, bere perfekziorik atsegin eta xumeanean. Giza prototipo dotoreak aire-ibilgailu elektromagnetiko zoragarrietan lekualdatzen dira; flotatzen duten etxe lirinetan bizi dira, non formen eta koloreen konfortak zentzumenezko plazerrak eskaintzen dituen, gure orainaldi inperfektuan intuitzeko gai baino ez garenak; eta jakin-min filosofikoz kosmosaren eta gogamenaren sektoreak aztertzen dituzte, ideia, aurrerapen eta proiektu berrien zeruertz habitagarria zabaltzen duten lekuak.

Betiereko Juan Giménez

FNAC
urria 30 – azaroa 30

Omenaldi sentitua komikigile eta ilustratzaile argentinar handi bati, munduan ezagun diren lanen egileari –besteak beste, *El cuarto poder*, *Ciudad* eta *La casta de los Metabarones*– joan den apirilean atsekabez utzi gintuenari.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

BESTE EKITALDIAK

Azaro mamua

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Fancine – Malagako Fantasiako Zinemaldia eta Terrormolins – Molins de Reiko Beldurrezko Zinemaldia hiru elkarraldi nazional dira, bai tematikan bai garatzen diren datetan bat datozenak. Hala, hiru zinemaldiak batu egin dituzte indarrak pandemia garaian fantasiako eta beldurrezko generoarekin lotutako edukiak sustatzeko, zabaltzeko eta sortzeko. **Azaro mamua** ekimenaz ari gara: hedapen-kanal partekatu berri bat.

Mikel Pagadi: Beldurted

Club Aretoa (Victoria Eugenia Antzokia)
azaroa 4

Mikel Pagadik eta bere lau begiek zinemako beldurrak eta sekretuak aztertuko dituzte: zergatik zombien filmeetan autoek ez dute sekula lehenengoan arrankatzen? Asier Altunaren **Amamak** ze klabe sekretu izkututzen ditu? Ze kristo esaten dio Bill Murrayek Scarlett Johanssoni **Lost in Translation**en bukaeran? Hau guzia eta gehiago **Beldurted** hitzaldian.

5. Fanzineen Gerra

Fanzineen Gerra legendarioaren bostgarren edizioa. Bertan, hainbat taldek zenbaki bereziak ateratzen dituzte Beldurrezko Asteari eskainiak eta lehian aritzen dira publikoaren babesa lortzeko. **Medialab Tabakalerako Autoedizio txokoarekin** eta **FNACekin** elkarlanean.